

aspaldi-danik badaduka erlisioneari atchikimendu; bai eta Eskualdun mintzaia zaarrari bertze asko erritan ez bezalako gozo bat, aotik bearrira doana.

Bertzalde neon ez dute *Madalen Larralde* aur gaicho zenarentzat eginak diren kopla oiek biotz geiago ukituko Saran berean baino; zeren den oraino an ageri, eta chutik azkar egoki neskatcha kartsuaren sor etchea. Are geiago atseginekin irakurturen dituzte beraz, erritar baten oroitzapenetan eginak direlaketz.

Beinik being uk emen *Eskualdunean* gogotik emaiten ditugu iragan direlako bestetan leen prima eraman duten bersuak:

## MADALEN LARRALDE SARATARRA AMABOBTZ URTETAN ILA, 1794AN



Elizak utsak ziren apezak iesi,  
Debruaren mutilak Frantzian nagusi!  
Gure Eskual errian, orotaz gainetik,  
Giristino jendentzan etzen bizitzerik.

Primadera goiz batez, argi urratzean,  
Saratar bat eldu zen Berako bidean:  
Neska gazte guria, *Madalen Larralde*:  
Bakarrik, otoitzean, zoan etche alde.

Betbetan sasipetik, otsoen pareko,  
Soldadu batzu oiuz ateratzen zaizko,  
«Non abila, neskatcha? Zertan intzen Beran?  
Ots, egia dena den, guri laster erran.»

Badaki Madaienek, egia erranik  
Ez dela arendako luzaz bizitzerik.  
Ala ere nai da egiaz mintzatu?  
«Kofesatzeko, dio, naiz Beran izatu.»

—«Zer! oin lili freskoa oin laster ebaki?  
 Ez, nai indukegu bizirik atchiki;  
 Ez aitor beraz zertan indabilan Beran.  
 Churi edo beltch, bertze zerbeit asma ezan.»

—«Bertzerik erratea gezurra litake;  
 Gezur ortaz arima zikinduko nuke.  
 Il bear balinbadut, il nadila garbi,  
 Garbi bizi dena da egiazko lili.»

Eta Madalen beti itz berean dago,  
 Nola Saran leenik, Donibanen gero.  
 An dire, Donibanen, *jujeak* bildurik:  
 Badoakote neska begia lañorik.

«Bai, bai, Jaunak, ala da: kofesetzen nintzen;  
 Ez dut egin dutana batere gordetzen.»

—«Aizen bezalakoa, badinagu aski:  
 Lepoaren moztea din orrek merezi.»

«Lepoa dautet beraz sarri pikatuko!  
 Ez naiz ordutik miiz mintzatzan aalko;  
 Bainan or izanez dut odola lekuko;  
 Gogotik il naizela egiaren-dako.»

Jendez da, Donibanen, estalia plaza;  
 Plazaren erditsutan *gillotina* gaitza.  
 Aingeru bat iduri debruen artetik,  
 Madalen agertzen da eskuak loturik.

Oro nigarrez daude, ura aldiz kantuz,  
 Lorietan badoa iltzeari buruz.  
 «*Salve Regina*», dio: «Agur Erregina,  
 Zutan dut esperantza, Ama guziz ona!»

Iganarazten dute tresna lazgarrirat;  
 Burua pikaturik badoa lurrerat,  
 Bainan arima chuchen alchatzen zerurat:  
*Egiak* du betikotz artzen bere ganat.